



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Gaur goizean Eusko Legebiltzarrean, Eurobask-en jardunaldien hasiera-ekitaldian

Arantza Quirogak: "Euskadik areagotu behar du bere lehiatzeko gaitasuna, esportatzeko bokazioa ez galtzeko, esportazioa baita hautematen hasi den suspertze txikitxoaren benetako motorra"

"Elkarren menpeko den mundu honetan, errealitate bihurtu behar dugu subsidiarotasun-printzipioa, erantzun globalak eman, tokian tokiko beharrak ahaztu gabe"

Alerta goiztiarrak, Lisboako Itunak ekarriak, berrmatzen du subsidiarotasun-printzipioa Batasuneko jarduera legegilean begiratzea, eta hori da Eusko Legebiltzarrak Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarrean beti defendatu duena.

Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko lehendakariak hasiera eman dio gaur goizean "Euskaditik ikusita, Lisboako Ituna" lan-jardunaldiari (Eusko Legebiltzarrak antolatu du, Eurobask Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluarekin batera), eta jardunaldian adierazi bezala, Euskadik Europako merkatuari begira lan egin behar du, euskal ekonomiak bere indarrari eutsiko badio.

Lisboako Ituna indarrean sartzea izan zen 2009. urteak utzi zigun berrikuntzarik handiena; baina, beharrezkoa izan zen berritze-prozesu luzea burutzea hasierako faseari amaiera eman baino lehen. "Guztiok dakigun bezala, hainbat herrialdek Europako Konstituzioari eman zioten ezezkoak bide zail baten aurrean jarri gintuen, eta horrela iritsi ginen bide horren bukaerara. Dena den, oraintxe hasten da zatirik zailena, zeren eta prozesu honen guztiaren helburu handiari ekin behar baitiogu, erreforma-proiektu handi hau Europako herritarren onerako kapitalizatzeari, hain zuzen.



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

"Lisboako Itunak Batasunaren etorkizunerako berrikuntza orokorrak dakartza, garrantzi handiko berrikuntzak. Espero dezagun, esan du Arantza Quirogak, erabaki politikoak hartzeko prozesua sinplifikatzeko asmoak emaitza onak izatea, Europako erakunde nagusien jarduera bizkortzea, beharrezkoa baita, eta bereziki Kontseilu Europarrarena, erabakiak hartzeko prozesua nabarmen sinplifikatu baita".

"Eta zelan eragiten dio honek Euskadiri? Edo are garrantzitsuago, nola eragiten die honek euskal herritarrei?" galdetu du Eusko Legebiltzarreko lehendakariak.

"Euskadirentzat asko dira desafioak. Diru eta merkatu komunaren konpromisoek, esaterako, gure lehiatzeko gaitasuna areagotzera behartzen gaituzte, eta etsi gabe gainera, protekzionismoa ez baita ezertarako aukera. Eta hori da, agian, betekizun zailenetako bat, bizi dugun krisi gogorrek gupidarik gabe astintzen baititu gure esportatzaileak".

"Egoera horrek, azpimarratu du Arantza Quirogak, bete betean eragiten dio Euskadiri, haren ekonomia kanpoko merkatuari, eta bereziki merkatu bateratuari, loturik baitago. Izan ere, Frantzia edo Alemania bezalako herrialdeekin (funtsezko bazkide komertzialak gure industriarako) ditugun esportazioak areagotzeak ekarri du egungo suspertze ekonomikoa".

Eusko Legebiltzarreko lehendakariak beste desafio bat azpimarratu du, Europako eskualdeetako gobernuek duten dilema: gobernu globaleko erakunde gehiago sortzen saiatzen ari da eta, aldi berean, botere politikoa gobernatuengandik urrun zentralizatzea saihestu nahi da. "Elkarren menpeko mundu honetan, oso gutxi dira tokiko ikuspegi batetik bakarrik azter daitezkeen interes orokorreko gaiak. Nola lortu konponbide globalak tokian tokiko beharretatik urrundu gabe? Nola eduki gogoan herritarren interesak, gizartearen alderdi desberdin eta konplexu guztiak, egunez egun gero eta zabalago den prozesu politiko batean? Nola heldu Europari europarrak begien bistatik galdu gabe?"

Hortxe du garrantzi osoa, Arantza Quirogarentzat, subsidiarotasun-printzipioak: erabaki politikoaren zentroak herritarrengandik hurbil egoteko ahalegina.

"Alerta goiztiarraren mekanismoa" da Lisboako Itunaren berrikuntza



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

interesgarrietako bat. Mekanismoaren bidez, Batasuneko organoen jarduera legegilean subsidiariorotasun-printzipioa benetan beteko dela zaindu nahi da. Hori da Eusko Legebiltzarraren berebiziko ardura, printzipio hori ezartzea eta garatzea sarritan eztabaidatu da-eta EELB Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarrean. Bereziki interesatzen zaigu gai hori, zuzenean eragiten baitio Europar Batasuneko egitura instituzionalean eskualdeetako legebiltzarrek izan behar duten protagonismo-mailari".



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

En la inauguración de las Jornada de Eurobask esta mañana en el Parlamento Vasco

Arantza Quiroga: “Euskadi debe elevar sus niveles de competitividad para no perder su vocación exportadora, verdadero motor de la tímida reactivación que se aprecia”

“Hay que hacer realidad el principio de subsidiariedad en este mundo interdependiente, dar respuestas globales sin alejarnos de las necesidades locales”

La *alerta temprana*, consagrada en el Tratado de Lisboa, vela por este principio de subsidiariedad en la actividad legislativa comunitaria, algo que el Parlamento Vasco siempre ha defendido en el seno de la CALRE

La Presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga, ha inaugurado esta mañana la jornada *El Tratado de Lisboa, una visión desde Euskadi*, que la Cámara vasca ha organizado conjuntamente con Eurobask (Consejo Vasco del Movimiento Europeo) y en la que ha puesto de manifiesto la necesidad que tiene Euskadi de mirar al mercado europeo para que la economía vasca mantenga su tirón.

Quiroga ha resaltado que la entrada en vigor del Tratado de Lisboa ha sido la gran novedad que nos ha dejado 2009 después de un largo proceso de reformulación que por fin logró clausurar su fase inicial. “Se ha tratado del fin de un complicado periplo que comenzó, como sabemos, con la negativa dada por algunos países a la Constitución Europea. No obstante, es ahora cuando empieza lo más difícil; porque nos enfrentamos a la tarea de capitalizar este ambicioso proyecto de reforma en beneficio de los ciudadanos europeos, el gran objetivo de todo este proceso”.

“El Tratado de Lisboa trae innovaciones globales de máxima importancia para el futuro de la Unión. Esperemos, apunta Arantza Quiroga, que la pretendida simplificación de proceso de decisión política rinda sus frutos, y podamos sentir la necesaria agilización de la labor de las principales instituciones europeas,

especialmente en el caso del Consejo Europeo, cuyo proceso de decisiones ha sido considerablemente simplificado.”

“¿Y en qué afecta todo esto a Euskadi? Más importante todavía, ¿cómo afecta esto a los vascos?”, se pregunta la Presidenta del Parlamento Vasco.

“Para Euskadi los retos son muchos. Los compromisos de la moneda y el mercado común, por ejemplo, nos obligan a buscar desesperadamente elevar nuestros niveles de competitividad, porque el proteccionismo ya no es una opción; y ahí yace quizá una de las promesas más difíciles de mantener en tiempos como este, en el que nuestros exportadores soportan una fuerte tormenta fruto de la honda crisis en la que nos encontramos sumidos.”

“A Euskadi, subraya Arantza Quiroga, esto le concierne particularmente por ser una región cuya economía se encuentra íntimamente vinculada al exterior, y particularmente al mercado común; prueba de ello es que los recientes signos de reactivación económica vienen dados por el incremento de nuestras exportaciones a países como Francia y Alemania, socios comerciales fundamentales para nuestro aparato industrial”.

Otro reto que destaca la Presidenta del Parlamento Vasco es el dilema que afrontan los gobiernos regionales en el ámbito europeo: el intento de crear más instituciones de gobierno global mientras procuramos evitar la centralización del poder político lejos de los gobernados. “En un mundo tan interdependiente, quedan pocas cuestiones de interés general susceptibles de ser abordadas únicamente desde la perspectiva localista. ¿Cómo buscamos soluciones globales sin alejarnos de las necesidades locales?, ¿cómo mantenemos presente los intereses de los ciudadanos, en sus múltiples y complejas facetas sociales, en un proceso político cuyas dimensiones se expanden día a día?, ¿cómo abarcar Europa sin perder de vista a los europeos?”

Es ahí donde para Arantza Quiroga cobra radical importancia la observación del principio de subsidiariedad, para procurar siempre que los centros de decisión política se acerquen al ciudadano.



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

“Una de las innovaciones más interesantes del Tratado de Lisboa es el denominado “mecanismo de alerta temprana”, por el cual se pretende velar por la efectiva observancia del principio de subsidiariedad en la actividad legislativa de los órganos comunitarios. Este es un tema que interesa de forma especial al Parlamento Vasco, dado que la aplicación y desarrollo de este principio ha sido una cuestión muy debatida en el contexto de la Conferencia de Asambleas y Legislaturas Regionales de Europa (CALRE). Constituye un asunto que nos interesa de manera directa, porque concierne al grado de protagonismo que deben ocupar los parlamentos regionales en el andamiaje institucional de la Unión Europea”.